

**Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala**



**Boletín
Oficial de
Gipuzkoa**

19

2021eko otsailaren 1a, astelehena

1

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

12/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 13koa, zeinaren bidez onesten baitira ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 56. artikuluan ezartzen du merkatuko batez besteko prezioak balioak egiaztatzeko bitartekoetako bat direla.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 86. artikuluko 2. apartatuan xedatzen duenez, balio egiaztapena merkatuko batez besteko prezioen arabera egiten denean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru aginduz onartu eta argitaratu ahal izango du batez besteko prezio horiek ondasun motaren arabera kalkulatzeko erabiliko den metodologia edo sistema, baita hortik ateratzen diren balioak ere.

Orain artean bitarteko hori jo da egokitzat garraiobide pribatuen balioak egiaztatzeko, eta horren ondorioz, urtero propio onartutako foru aginduan jasota utzi dira ez bakarrik turismo ibilgailuen, lur orotarakoen eta motozikleten merkatuko prezioak, baita aisiarako itsasontzienak ere.

Bestalde, abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauak, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak, 45. artikuluan dio Administrazioaren egiaztapenetik kanpo geratuko dela errepidez zirkulatzeko ibilgailu motordun mekaniko erabilien balioa, bai eta itsasontzi erabiliaren ere, aldian-aldian foru agindu bidez argitaratzen diren batez besteko salmenta prezioen tauletan jasota badaude.

Aipatutako tauletan, ibilgailu edo urontziaren erabilera urteen arabera aplikagarri diren balio galerako portzentajeak jasoko dira.

Balorazio hori berdin aplikatu da orain arte bai oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan eta bai zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian ere.

Orobat, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 20. artikulua bigarren paragrafoan ezartzen du ezen zergadunek, merkatu balioa zehazteko, erabil ditzaketela zergaren sortzapean egunean ibilgailu erabilentzat indarrean dauden balorazio taulak, hain zuzen ere ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergarako Foru Aldundiak onartutakoak.

Aipatutako ibilgailuen azken eguneratzea urtarrilaren 30eko 35/2020 Foru Aginduaren bidez egin zen. Agindu horrek ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartzen ditu, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.

Hori guztia dela-eta, bidezkoa da haiei aplikagarri zaizkien batez besteko salmenta prezioak eguneratzea 2021erako.

Modeloen eta prezioen taulak prestatzeko, garraiobideen fabrikatzaileen eta saltzaileen elkarteetan argitalpenak erabili dira, baita fabrikatzaileek beraiek ibilgailu berriei buruz emandako oharra eta ezaugarri teknikoak ere.

Aurreko urteetan bezala, modeloen informazio eta identifikazio datu gisa ere zaldi potentzia (ZP) mantentzen da motorren potentzia adierazteko, ohiturari jarraituz. Izan ere, datu hori izaera komertzialeko datu orokorra da, automobilen zenbait modelo identifikatzeko balio duena, nahiz eta ez den inola ere Neurketa Unitateen Legezko Sistemaren onartutako unitate bat (abenduaren 22ko 32/2014 Legea, Metrologiarena). Era berean, ibilgailu batzuk bereizte aldera, erabaki da merkaturatze aldia ere identifikazio elementu gisa erabiltzea, haien deitura denboraren joanean ere mantentzen baita. Izan ere, ibilgailu batzuk, desberdinak izanik ere, izen komertzial berdinarekin jarraitzen dute urte askotan. Bestalde, motozikleten batez besteko prezioak adierazteko, motorren tamaina hartu da berriro kontuan, metro kubikotan adierazia. Zilindrada handiagokoen kasuan, kopuruak gehitu egin dira denborak aurrera egin ahala haien merkaturako balioa handiagoa izaten delako.

Idazpuru berean, ibilgailuen datu teknikoak jasotzen dira, potentzia kilowattetan adierazita (kW).

Azkenik, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokionez, eta balorazioa Europar Batasuneko irizpideekin bat etor dadin, mantendu egin da aurreko urtean erabilitako formula, hau da, merkaturako balioetik kanpo uzten da, zerga horren ondorioetarako, ibilgailu erabiliak dagoeneko jasan duen zeharkako zerga.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Batez besteko prezio aplikagarrien taulak.

Onarturik geratzen dira ibilgailu eta itsasontzi erabilien batez besteko salmenta prezioak eta horien antzintasunaren arabeko balio-galeraren portzentajeak jasotzen dituzten taulak, foru agindu honetako I., II., III. eta IV. eranskinetan ageri direnak.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru agindu honen bidez onartzen diren batez besteko salmenta prezioak egiaztatze gisa erabili ahal izango dira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko

zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzeko.

3. artikulua. *Nola zehaztu turismo ibilgailuen, lur orotarako eta motozikleten balioa.*

Dagoeneko matrikulatuta dauden turismo ibilgailuen, lur orotarako eta motozikleten balioa zehazteko, foru agindu honetako I. eranskinean ageri diren batez besteko prezioei agindu honetan IV. eranskinean jasotako taulan eta instrukzioetan ezarritako portzentajeak aplikatuko zaizkie, erabilpen urteak eta, hala badagokio, ibilgailuaren jarduera kontuan hartuta.

4. artikulua. *Nola zehaztu aisiarako itsasontzien eta itsas motorren balioa.*

Aisiarako itsasontzien eta itsas motorren balioa finkatzeko, alde batetik ontzia baloratu behar da, motorrik gabe, eta beste alde batetik motorra. Horretarako, foru agindu honetako II. eta III. eranskinetan ezarritako balioak hartu behar dira eta balio horiei III. eranskinean erabilpen urteen arabera ageri den taulako portzentajeak aplikatu. Azkenik, balio eguneratuak batu behar dira, ontziaren balio osoa lortzeko.

5. artikulua. *Balioa zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian zehazteko erregela berezia.*

Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokionez, erregela hauek aplikatuko dira:

Lehena. Foru agindu honetako I., II. eta III. eranskinetan ageri diren batez besteko prezioei agindu honetako IV. eranskinean jasotako taulan eta instrukzioetan ezarritako portzentajeak aplikatuko zaizkie, erabilpen urteak eta, hala badagokio, ibilgailuaren jarduera kontuan hartuta.

Bigarrena. Garraiobideak atzerrian matrikulatuta egon badira, eta Gipuzkoan ibilgailu erabilien behin betiko lehen matrikulazioa egiten bazaie, aurreko lehen erregelari jasotakoaren arabera kalkulatu merkatu baliotik zeharkako zergen kuoten hondar balioa kendu behar da. Horretarako, formula hau erabili ahal izango da:

MB

ZO =

$$1 + (\text{BEZtasa} + \text{ZGZBtasa} + \text{BESTELAKOtasak})$$

Hor:

ZO: garraiobide erabilien zerga oinarria zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian.

MB: merkatu balioa, batez besteko prezioen taulen arabera kalkulatu IV. eranskinetako portzentajeak aplikatu ondoren.

BEZ tasa: garraiobidearen lehen matrikulazio efektiboa Espainiako lurralde eremuan egiteko unean indarrean dagoen zerga tasa, BEZarena, bateko hainbestean adierazia.

ZGZB tasa: garraiobidearen lehen matrikulazio efektiboa Espainiako lurralde eremuan egiteko unean zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziagatik exijituko zen zerga tasa, bateko hainbestean adierazia.

BESTELAKO tasak: garraibidearen erosketa kargatu duten zeharkako beste zerga guztien karga tasak batzearen emaitza, bateko hainbestean adierazia, baldin eta merkatu balioan sartuta badaude.

Xedapen gehigarri bakarra. Foru agindu honetan sartu gabeko ibilgailuak.

1. Ibilgailu horiei dagokienez batez besteko salmenta prezioei buruzko foru agindu berri bat onartzen ez den bitartean, indarrean jarraituko du ekainaren 19ko 293/2019 Foru Aginduak, abenduaren 28ko 0662/2018 Foru Aginduan sartu gabeko ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraibideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko onartzen dituenak.

2. Ekainaren 19ko 293/2019 Foru Aginduan abenduaren 28ko 0662/2018 Foru Aginduari buruz egindako aipamenak foru agindu honi buruz egindakotzat joko dira.

Xedapen Indargabetzailea.

Indarrik gabe geratzen da urtarrilaren 30eko 35/2020 Foru Agindua, ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraibideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.

Azken xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 13a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(186)



ZIKLOMOTORREN ETA MOTOZIKLETA ERABILIEN BATEZ BESTEKO PREZIOAK,
AURRENEKO ALDIZ MATRIKULATU
ONDORENGO LEHEN URTEAN /
PRECIOS MEDIOS DE CICLOMOTORES Y MOTOCICLETAS, USADOS DURANTE EL
PRIMER AÑO POSTERIOR A SU MATRICULACIÓN

2021eko ekitaldirako balioak / Valores para el ejercicio 2021

<i>Zilindrada / Cilindrada</i>	<i>Prezioak / Precios</i>
	<i>Euroak / Euros</i>
50 zil. artekoak / Hasta 50 c.c.	600
50,01 eta 75 zil. artekoak / De 50,01 a 75 c.c.	750
75,01 eta 125 zil. artekoak / De 75,01 a 125 c.c.	1.100
125,01 eta 150 zil. artekoak / De 125,01 a 150 c.c.	1.200
150,01 eta 200 zil. artekoak / De 150,01 a 200 c.c.	1.300
200,01 eta 250 zil artekoak / De 200,01 a 250 c.c.	1.500
250,01 eta 350 zil artekoak / De 250,01 a 350 c.c.	2.200
350,01 eta 450 zil artekoak / De 350,01 a 450 c.c.	2.700
450,01 eta 550 zil. artekoak / De 450,01 a 550 c.c.	3.000
550,01 eta 750 zil artekoak / De 550,01 a 750 c.c.	5.000
750,01 eta 1.000 zil. artekoak / De 750,01 a 1.000 c.c.	7.500
1.000,01 eta 1.200 zil artekoak / De 1.000,01 a 1.200 c.c.	9.500
1.200,01 eta zil. handiagokoak / De 1.200,01 c.c. y superior cilindrada	12.000



III. ERANSKINA

ITSAS MOTORRAK

Itsas motorraren oinarritzko balorazioa. Horren transmisioa ere kontuan hartu da (karelez kanpoko, karelez barrukoa, karelez kanpo eta barrukoa).

Benetako unitatearen potentzia mekanikoko kW edo zp-en arabera, erregai motari jarraituz:

	<i>Gasolina (Euro/benetako kW)</i> <i>Gasolina (Euros/kW real)</i>	<i>Diesela (Euro/benetako kW)</i> <i>Diesel (Euros/ kW real)</i>
37 kW-raino /Hasta 37 kW	56,86	97,46
Hortik gorako kW bakoitzeko / Por cada kW más	36,80	57,24

	<i>Gasolina (Euro/benetako zp.)</i> <i>Gasolina (Euros / cv. real)</i>	<i>Diesela (Euro/benetako zp.)</i> <i>Diesel (Euros / cv. real)</i>
50 zpaino /Hasta 50 cv.	42,07	72,12
Hortik gorako ZP. bakoitzeko / Por cada cv más	27,05	42,07

Itsasontzietan, motorrik gabeko ontzia eta motorra bereizita baloratuko dira.

Zerrendan jasotako balioa motorrik gabeko ontziarena izango da eta, eta antzinatasunaren arabera balorazio portzentajeak erabiliz eguneratzeko oinarri gisa balio izango du, segun eta belaontzia eta motorrezko ontzia izan.

Motorizazioa belaontzietan osagarria eta motorrezko ontzietan funtsezkoa izanik, itsas motorraren oinarriko balorazioaren arabera kalkulatu da motorizazioaren oinarriko balioa, eta balorazio portzentajei jarraituz eguneratuko da propulzio-ekipoaren antzinatasunaren arabera.

Balio eguneratu osoa lortzeko, batu behar dira motorrik gabeko ontzien eta itsas motorren balio eguneratuak (alegia, lehenago lortutako balioak).

Hona hemen erabilpen urteen arabera zehaztutako balorazio portzentajeak, Ogasuna eta Finantza Departamentuak itsas ontzi eta motorretarako finkatu dituen batez besteko prezioei aplikatu behar zaizkienak:

Erabilpen urteak / Años de uso	Itsasontziak (motorrik gabe) Embarcaciones (sin motor)		Itsas motorrak haien transm. Motores marinos con su transmisión
	Belaontziak / A vela	Motorrarak / A motor	
Urtebete arte / Hasta 1 año	100	100	100
Urtebete baino gehiagotik 2 urtera / Más de 1 año, hasta 2	95	85	85
2 baino gehiagotik 3 urtera / Más de 2 años, hasta 3	89	72	72
3 baino gehiagotik 4 urtera / Más de 3 años, hasta 4	78	61	61
4 baino gehiagotik 5 urtera / Más de 4 años, hasta 5	70	52	52
5 baino gehiagotik 6 urtera / Más de 5 años, hasta 6	60	44	44
6 baino gehiagotik 7 urtera / Más de 6 años, hasta 7	55	37	37
7 baino gehiagotik 8 urtera / Más de 7 años, hasta 8	40	32	32
8 baino gehiagotik 9 urtera / Más de 8 años, hasta 9	38	27	27
9 baino gehiagotik 10 urtera / Más de 9 años, hasta 10	35	23	23
10 baino gehiagotik 11 urtera / Más de 10 años, hasta 11	30	19	19
11 baino gehiagotik 12 urtera / Más de 11 años, hasta 12	25	16	16
12 baino gehiagotik 13 urtera / Más de 12 años, hasta 13	20	14	14
13 baino gehiagotik 14 urtera / Más de 13 años, hasta 14	15	12	12
14 urtetik gora / Más de 14 años	10	10	10

IV ERANSKINA

Hona hemen erabilpen urteen arabera zehaztutako balorazio portzentajeak, Ogasuna eta Finantza Departamentuak jadanik matrikulatutako turismoko eta lur orotariko ibilgailuetarako eta motozikletetarako finkatu dituen prezioei aplikatu behar zaizkienak:

Erabilpen urteak / Años de uso	Portzentajeak / Porcentajes
Urtebete arte / Hasta 1 año	100
Urtebete baino gehiagotik 2 urtera / Más de 1 año, hasta 2	84

2 baino gehiagotik 3 urtera / Más de 2 años, hasta 3	67
3 baino gehiagotik 4 urtera / Más de 3 años, hasta 4	56
4 baino gehiagotik 5 urtera / Más de 4 años, hasta 5	47
5 baino gehiagotik 6 urtera / Más de 5 años, hasta 6	39
6 baino gehiagotik 7 urtera / Más de 6 años, hasta 7	34
7 baino gehiagotik 8 urtera / Más de 7 años, hasta 8	28
8 baino gehiagotik 9 urtera / Más de 8 años, hasta 9	24
9 baino gehiagotik 10 urtera / Más de 9 años, hasta 10	19
10 baino gehiagotik 11 urtera / Más de 10 años, hasta 11	17
11 baino gehiagotik 12 urtera / Más de 11 años, hasta 12	13
12 urtetik gora / Más de 12 años	10

Aurreko portzentajeak erabilia ateratzen den portzentajea 100eko 70 murriztuko da, baldin eta saldutako ibilgailua bakarrik lotuta egon bada, sei hilabete baino gehiagotan behin betiko lehen matrikulaziotik aurrera, kontraprestazio bidezko gidarien irakaskuntzari edo gidaririk gabeko ibilgailuen ailekairuari edo, bestela, indarrean dagoen legeriaren arabera, taxi, autotaxi edo autoturismoa izan bada.